



Eric Dicharry

♦ ANTROPOLOGOA

Paradoxa jasanezinak

MUNDUA urruntasun batez so egin behar da. Urruntasunak mundua den bezala ikusteko laguntzen digulako. Urruntasunak munduaren paradoxak biluzten dituelako. Eta hor begien aitzinean jasanezina den mundua agertzen zaigu. Apez pedofiloak, klientelismoa, korrupzioa, gizartearen erreproduzioa, determinismoen gaindiezinak, aberastasunaren partekatze eza, langile behartsuak, Guantanamo Kuban kokaturik, Guantanamo bera, giza eskubideen zapalkuntzak, Frantziaren hiltzaileak *Res publicaren* interesen arabekoak, Frantziaren armen salmentak, alde batetik Ameriketako Estatu Batuen (AEB) drogaren kontrako gerla eta beste alde batetik AEBen drogen kontsumoa, Ipar Euskal Herriko euskararen ofizialtasunaren gabezia, Euskal Herriko independentziaren eza, populuen ez-jabetasuna, polizien indarkerien zigorgabetasuna, Euskal Herriko burmuinen ihesa, iruzur fiskalak, paper administratiboen diktadura.

Seaskaren alde, dudan diru xumea oparitzeko Iparraldeko Senpereko Herri Urratsen izan naiz. Baina, aurten burmuinean galdera batekin joan naiz. Euskararen aldeko borroka horretatik nor aterako da irabazle?

Egunero munduan zehar zabaltzen diren berriek paradoxaz paradoxa deitzen den bidaiarantz eramaten gaituzte. Munduko paradoxek sinkretismoaren ahuleziak erakusten dizkigute. Alde batetik diskurtsoak, beste alde batetik ekintzak. Artean zentzuaren galtzea. Joseba Sarrionandiak dioen bezala: “Euskaldunak pertsona errealistak, pragmatikoak eta auzolaneakoak garela normalean eta politikaren inguruan ostera, ba, irrealistak, alferlan zaleak eta bata bestearen kontrako borrokari prestuak bihurtzen garela, ez? Hitzak ere beste alorretan, hitz bat erabiltzen duzu eta badakizu zer esan nahi duen, ez? (...) Politikaren alorrean ostera esaten dira hitzak hustuta bezala, ez? Esanahirik gabe”.

Maiatzaren 10ean, Seaskaren alde, dudan diru xumea oparitzeko Iparraldeko Senpereko Herri Urratsen izan naiz. Baina, aurten burmuinean galdera batekin joan naiz. Euskararen aldeko borroka horretatik nor aterako da irabazle? Seaskak Ziburuko Herriko Etxearekin ukan zituen tirabiretatik, irabazle figuratuz, Seaskari ikastola berria eraikitzeko salduko dion lurraren jabea ikusten dut. Lur espekulazioari esker 300.000 euro gehiagorekin bere sakelari Ziburuko karraketan ibiliko den jabea. Hor datoz nire galderak: Uste duzue jabeak kontzientzia txarra ukatzen duela? Uste duzue berak euskaldunen elkartasunari esker irabaziko duen dirua Herri Urratsera oparitzera joan zenentz? Lurra lortu nahi dugunean nola lortzen da, okupatuz ala ordainduz? Borroka batean beti ertz desberdinak badira. ■

GUIKURI
nekazal etxea



Guikuri, 1 • 01138 Murua (Araba)
T 945 464084 / 615782323
guikuri@euskalnet.net
www.guikuri.com

